

ABIZENAK

BASALDUA: Okendon sortua dala diñoe baiña gero zabal dabil. (Bilbao-1637)
Batzuk "ase" edo sasia artzen dabe jatorri lez, baiña erre-zago da "basoa" artzea eta onek "-aldu" atzizkia daroa eta goikoa esan gura dau.

BASOZABAL: Oñaten agertzen da, Mungian be bai. Gero Errioxan. (1600)
Esangurea argi dago: Basoa ta zabala. Olako lekuan etxe-ren bat.

BASTERRETXEA: Bizkai guztian, itxas-ertzetik asita. (Ondarribi-1645)
Esannaia argi dago: Basterrean dagon etxea.

BAZTERRA: Gazteizen eta Orozkon agertzen da eta zabaldu Bizkaian geien. (1701)
Berbeak argi diño zer dan: Basterrean egindako etxeari ipiñiko eutsoen izen ori, ortik abizena. Ez dot uste batzuk aitatzen daben "sasia" kontuan artzekoa danik.

BATIZ: Fruniz'en dagoz iru etxe izen au dakenak (Goi-koa, Bekoa ta Erdikoa). Arbazegin be ba-dago.
"-ata" sasia ei da, "B-" gero ezarritakoa eta azkeneko "-iz" toki-izen askotan agertzen da eta ez dakigu zer dan. (Bilbao-1791) ugaritasuna.

BAJENETA: Arrietako Jainkon dago etxe bat. Fika'n be bai beste bat, Bainta deritxona, lenago Bejeneta izango zan.
"-ai" mendi-aldapa ei da, -in- toki-atzizkia, "-eta" asko-rena eta asierako "B-" gero ezarria. Orduan "aldapan dagozan" etxeak litzake. (Arrieta-1587)

BEASKOETXEA: Erri askotan dago izen au: Galdaka-non, Marurin, Gamizen, Atxondon.
"-Etxea" argi dago eta "-Beasko" beko-aldean dagoana da.

BEGIRISTAIN: "-egi" aldapa da, "-iri" irea, "-st" ` -tza"ren antzera, ugaritasuna eta "-ain" gaiñean. Aurreko "B-" gero ezarria da: "Ira asko dagoan aldaparen gain". (Azpeitia- 1 570)

BEITIA: Bizkai guztikoa da, batez be Mungialdekoa. (Elorrio-1575)
"Bee" etxea dagoan tokia da, beia, eta "-it-" toki-atzizkia. "Goitia" be antzekoa.

BEIZTEGI: Bergara-inguruan zabalen.
Oñarrian "-iz-" dago, iza uretako zia da, junkoa, eta "-tegi-" asko dagon tokia. Aurreko "B-" gero ezarria, erre-zago esateko. (Soraluze- 1562)

BELARRINAGA: Larrabetzun sortua.
"Be-", bekoaldean dagoalako, "-larrin-" edo "larrain" garia joteko lekua (era) eta "-aga-" toki-atzizkia. "Beko larraiña dagon lekuko etxea".

BELASKO: Abizen euskalduna da jatorriz, baiña Eus-kalerritik urten egin dau. Gaur emen dagozenak geienak gero etorriak dira. Baiña abizena jatorriz euskalduna da. "Bela-" guztiok dakigun egatzia da eta "sko" umea adie-razten dauan atzizkia: Oillasko.
Belasko, belakumeá da. 915n. urtean agertzen da, Oskan.

BELDARRAIN: Gipuzkoako Aia inguruan sortua da baiña Bizkaian be ba-dago, bear ba'da neguko artzaiñak ekarrita. (Donosti- 1697)
Bedartza baten gaiñean dagoana esan nai dau: "Belar-gain".

BENGOA: VIII gizaldian agertzen da Leniz'ko Gatzagan. Mungialdean eta Bizkai guztian be ba-dago.
Jatorriz "Berengoa" da, beste etxe batzuk artean beren dagoana.

BENGOETXEA: Bengoa lez, beren dagoana adierazten dau, baiña emen "-etxea" be agertzen da. (Iruña-1758)
Gipuzkoa geienean dago eta Bizkaian be zabal, batez be Mungialdean.

BEOBIDE: Bizkai eta Gipuzkoa osoan agertzen da. (Asteasu- 1749)
Beorren bidea adierazten dauala dirudi.